



ESKUALDEKOAK ERE DURANGOKO AZOKAN

Gaur bertan irekiko ditu ateak Durangoko Disko eta Liburu Azokak; hilaren 8ra arte 345 argitalpen berri aurkeztuko dira. 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-12-04

VIIURTEA 1.844.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Asteasuko pilotalekuan ere egin zuten euskararen aldeko ekitaldia; gaztetxoek «airea» eman zioten euskarari. I.GARCIA

EUSKARAZ HITZ EGITEKO MEZUA ZABALDU DUTE

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Euskararen Eguna izan zen atzokoa eta hizkuntza sustatzeko ekimen ugari egin ziren eskualdean 4

Emakume abertzaleen IV. Topaketak antolatu dituzte

TOLOSA Identitate feminista izango dute hizpide, 'Biluztuz jantzi' lelopean, hilaren 12an 2

Erosketak eginez gero, 6.000 euro irabazteko aukera

TOLOSA Alde Zaharra Dendak elkarteak Eguberrietako kanpaina abiarazi du 3



Elena Lopetegí, Itxaropena Elordi eta Arantxa Etxeberria, atzo. I.T.



TXOKOA hitza



saridunak

**LAGUN ARO GBC
XACOBEO**

saskibalo partidarako

Abenduak 6 • Igandea • 19:00etan Donostiako Ilunben

BELEN MAIZKURRENA (TOLOSA)

sarrerak **HITZA**ko gure egoitzan jaso

Identitate feminista hausnarketa gai izango da datorren astean, Tolosan

Gizartea » 'Biluztuz jantzi' lelopean, Bilgune Feministak antolatuta Emakume abertzaleen IV. topaketak egingo dira.

ERREDAKZIOA

Datorren asteburuan, hilaren 12an, Emakume abertzale eta feministen IV. topaketak egingo dira Tolosako Leidorren. Hausnarketa-gune izango da hau, eta aurrerago, identitateen gaia izango da ardatza. *Biluztuz jantzi. Identitate feminista sortuz, Euskal Herria aldatu* lelopean, egun guztian zehar izango dira ekitaldiak.

Egun, mugimendu feministan orokortua dagoen eztabaida da identitatearena, eta horren aurrean, Bilgune Feministak duen posizioa erakutsi nahi dute.

Topaketen helburuetako bat identitatearen eraikitzea izango da. Izan ere, garai hauetan, subjektibotasunetik sortzen denaren ideia zabaldua dagoela uste dute, eta ikuspuntu hau iraultzeko beharra aldarrikatu. Identitateak norbere zein kolektiboan egiten diren praktikek zehazten dutela barneratzea da Bilgune Feministakoen asmoetak bat. Argi dute ere, identitate sexualak soilik ez dituela emakumeen identitateak baldintzatzen. Abiapuntutzat hau hartuta, emakumeen identitatearen eragina duten, hiru ardatz aurkezten dituzte: nazio-kultura, sexua eta klasea.

Identitatearen gaian sakontzeaz gain, instituzioek bideratzen dituzten politiken eta planen inguruan ere eztabaidatuko dute. Izan ere, hau, mugimendu feminista-arentzat erronka garrantzitsua da. Hala, instituzioek bideratzen dituzten politikak nahikoak ez direla uste dutelako, «pauso bat aurrera-



Bilgune Feministak antolatuta dituen topaketak aurkeztu zituzten atzo iluntzean. E. EZEIZA

go emanaz, benetan emakumeen egoera irauliko dute plan, lege eta politikak ezagarrizera» doaz.

Historikoki mugimendu feministaren eztabaidagai

IV. topaketa hauetarako, identitatearen gaia, ez dute kasualitatez aukeratu. Izan ere, historikoki mugimendu feministaren eztabaida nagusietako bat izan da hau. Hala ere, hamarkada eta une bakoitzean izen eta abiapuntu ezberdinak hartzearen ondorioz, mugimendua antolatuta, batu eta banatu du. Honen aurrean, Bilgune Feministak duen ikuspuntua txertatzea ezinbestekotzat jotzen dute. «Kontuan hartu behar baita, mugimendu feministak eginiko ekarpenen eraginez sortu den eztabaida bat dela», azaltzen dute bertako ki-deek.

» EMAKUME ABERTZALEEN TOPAKETA FEMINISTAK

Egitaraua

- **09:00.** Izen-ematea.
- **09:45-11:30.** Mahai-inguru nagusia: Nortasun feminista Zer da eta nola sortzen da identitate feminista?
- **11:30-12:00.** Atsedendaldia.
- **12:00-14:00.** Hiru mahai-inguru. 1. Euskal Herriko mugimendu feministak. Identitatea landu duten diskurtso eta praktikak. 2. Identitate feministarik gabe ba al dago Euskal Herria aldatzerik? 3. Sexu identitateak. Eztabaida berriak.
- **14:00-16:00.** Bazkaria.
- **16:00-16:30.** Ideia nagusien aurkezpena.
- **16:30-18:30.** Mahai-inguru nagusia: Genero politikak vs. analisi feministak: Euskal Herriko emaku-

meen egoerari begiratzeko bi modu.

- **18:30.** Amaiera ekitaldia egingo da.

Zenbait datu

- **Ohar teknikoak.** Haurtzaindegiz zerbitzua egongo da eta itzulpen-gintzakoa ere bai.
- **Izen-ematea egiteko modua.** www.bilgunetopaketak.mundua.com helbidean egin daiteke. Prezioa 15 eurokoa da (langabetuentzat 8 eurokoa). Ordainketa kontu korronte honetan egin daiteke: 3035 0134 46 1340042190. Harremanetarako telefono zenbakia hau da: 609-921373 (16:00etatik 20:30era). Topaketen helbide elektronikoa: ehbf@bilgunefeminista.org.

Gaur izango da Nikola Tanaskovic-ren akordeoi kontzertua

Kultura » 19:30ean Musika Eskolan izango da emanaldia; gaztea izan arren, ibilbide handiko musikaria da bera.



Nikola Tanaskovic. HITZA

ERREDAKZIOA

Nikola Tanaskovic musikariak akordeoi kontzertu bat eskainiko du gaur Musika Eskolan. Emanaldia 19:30ean izango da.

Tanaskovic 1990en jaio zen Novi Sad-en (Serbia). Egun, Kragujevac-eko Goi Zentruan ari da ikasten, Kostovic Predrag-rekin. Seminario eta master class-etan egon da Vojin Vasovic, Tibor Racz, Mika Vayrynen, Jury Shishkin, Elsbeth Moser eta Vladimir Murza irakasleekin.

Gaztea izan arren, nazio eta nazioarteko lehiaketetan parte hartu du, hala nola: Belgradoko Nazio Lehiaketan lehen saria (2004), Kragujevac-eko Zvezdane Staze Lehiaketan lehen saria (2005, 2007 eta 2008), Concorso Internazionale Citta di Castelfidardo-n hirugarren saria (Italia, 2005), Pula-ko Nazioarteko Lehiaketan lehen saria (Kroazia, 2007 eta 2009), Klingenthal-eko Nazioarteko Lehiaketan bigarren saria (Alemania 2007), Kragujevac-eko Nazio Lehiaketan lehen saria (2008), Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketan lehen saria (2008), Trophée Mondialeko lehen saria (2008).

44

DURANGOKO
EUSKAL LIBURU
ETAN DISKOGRAFIA
2009ko Abenduaren 4tik 12ra

ABENDUAK 4

11:00 ELKARTEGIA BREAK-BERTSO-HIP HOP SAIOA

19:00 ELKARTEGIA HITZALDIA: ANDREU CARRANZA

21:30 SAN AGUSTIN MIRANT AL CEL FILMAREN EMANALDIA







Kirol jarduera

Gaur, ostirala

Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, 20:15ean, nazional mailako partida: Laskorain-Zarautz.

Bihar, larunbata

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, kadeteen lehenengo mailako partida: Tolosa CF-Urnie-ta.

■ Berazubiko futbol zelaian, 16:30ean, gazteen ohorezko mailako partida: Tolosa CF-Real Union Club.

Pilota

■ Beotibar pilotalekuan, 16:30ean, 2. maila Lau t'erdiko Txapelketako finala: Argote-Urrutikoetxea.

Wu Shu

■ Beotibar pilotalekuan, 23:00etan, Sanda Wu Shu jaialdia.

Etzi, igandea

Zesta-punta

■ Beotibar pilotalekuan, 17:00etan hasita, Txuletaresa desafiara: lehen-dabizi, klubeko puntista gazteen erakustaldiarekin. Ondoren, 18:00etan, Jai-Aliveko pilotari onenatariko lau aurrez aurre: Egi-guren II eta Konpa Foronda eta Jon Arriagaren aurka.

Hilaren 7a, astelehena

Pilota

■ Beotibar pilotalekuan, BBK Masters txapelketako aurrekanporaketako partida, 16:30ean hasita: Olai-zola I Beginoren aurka.

Hilaren 8a, asteartea

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, emakumeen senior mailako partida, F-11: Tolosa CF-Segura.

Laburrak

Sukaldaritzako makrobiotikozko hitzaldia

GIZARTEA ■ Helduen Hezkuntzako Eskolak antolatutako sukaldaritzako makrobiotikoari buruzko hitzaldia egingo dute hilaren 10ean, 17:30ean. Helduen Hezkuntza Eskolan bertan izango da hitzaldia, Amaya Rossen eskutik. Hitzaldia amaitzean luntxa egingo dute.

Santa Maria kapera eta Orfeoia elkarrekin

MUSIKA ■ Santa Mariako Musika kapera eta Tolosako Orfeoia Sortzez Garbiaren egunaren harira Santa Maria Parrokian bi emanaldi eskainiko dituzte. Lehen astelehenean, hilaren 7an izango da, 19:00etako mezan. Bigarrena, berriaz, asteartean eskainiko dute, hilaren 8an. Hau, 12:00etako mezan izango da.

6.000 euro jarriko ditu jokoan Alde Zaharra Dendak elkarteak Gabonetan

Merkataritza ■ Gaurtik urtarrilaren 6ra bitarte eginiko erosketengatik zozketan parte hartzeko aukera izango da.

INIGO TERRADILLOS

Bosgarren urtez, Alde Zaharra Dendak elkarteak Gabonetako kanpaina berezia jarri du martxan. Erosleak erakartzeko helburuz, erosketak egiten dituztenek zozketa batean parte hartuko dute, eta sari bezala, 6.000 euro lortu ahalko dituzte.

Gaurtik urtarrilaren 6ra arte iraungo du Gabonetako kanpaina berezia. Beraz, tarte horretan Alde Zaharra Dendak elkartearen baitako dendetan erosketak egiten dutenak sartuko dira zozketan. Erosketak egiten den unean, dendariak txartela emango diete erosleei, eta zozketan sartu ahal izateko izen-abizenak, herria eta telefono zenbakia jartzea nahiko izango da. Txartelaren atzealdean denda bakoitzaren ikurra jarriko dute, zozketa egiten den unean nor den irabazlea jakiteaz gain, zein dendatan jaso zuen txartela ezagutzera ere emateko.

Plaza Zaharrean kokatua dagoen Erretengibelen egingo dute zozketa urtarrilaren 8an, 13:30ean, eta ondoren emango diete irabazle suertatu denari berri ona.



Alde Zaharra Dendak elkarteko Elena Lopetegui, Itxaropena Elordi eta Arantxa Etxeberría, atzoko aurkezpenean. I.T.

«Bizi dugun egoeraren araberako saria»

Alde Zaharra Dendak elkarteko kideek aurtengo saria nabarmendu eta arrazoitu zuten atzo eginiko Gabonetako kanpaina bereziaren aurkezpenean. «Aurtun dirua ematea erabaki dugu, eta ez erosketak txartel bat, esaterako; izan ere, bizi dugun egoera ikusita pentsatu dugu jendeak gehiago eskertuko duela dirua irabaztea, gastueta-

ko adibidez erabiliko ahaliko baita», azaldu zuen Itxaropena Elordi Alde Zaharra Dendak elkarteko lehendakariak.

Kanpainaren berri herritar guztiak izan dezaten esku orriak banatuko dituzte kalean, eta auto baten bidez ere zabalduko dute 6.000 euroko zozketan parte hartzeko aukera dutela erosketak egiten dituzten herritarrek. Bestalde, aurtengo Gabonetan Alde Zaharra

Dendak nahiz Igarondo elkarteak bakoitzak kanpaina bere aldetik egingo badu ere, aurrera begira, bi merkatarik elkarteek elkarrekin ekimenak antolatzekeo ideia ere nabarmendu zuten.

Sari potoloa eskuratzeko aukera dagoela aintzat hartuta, Alde Zaharra Dendak elkarteak erosketak egitera animatzen ditu herritarrik, «guztiei zorte ona opatzearekin batera».

Kaleak Berdintzen proiektuan parte hartzeko aukera Gko galerian

Berdintasuna ■ Hilaren 15era arte egin ahalgo dituzte herritarrek ekarpenak herriko kaleen eta txokoen inguruan.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak Emakumeentzako Jabe-kuntza Eskola antolatu zuen hainbat ikastaro eta tailerrekin. Bertan, besteak beste, Hiria Kolektiboak Tolosa Berdintasunaren hiria izeneko tailerra eman zuen. Tolosako kaleek senti eta bizi arazten dietena eta ez dietena aztertu zuten parte-hartzaileek, kale, plaza eta inguru ezberdinak nola hobetu daitezkeen hausnartuz. «Herritar guztiak eskubide berdinekin izateko, oinez lasai edonon, edonoiz eta edonorekin ibili ahal izateko» helburuz burutu da ekimena, eta horren ondorioz, Kaleak Berdintzen proiektua sortu da.



Kale Nagusiko Gko galerian dago Tolosako planoa jarrita. E. EZEIZA

Berdintasuna xede

Gko galerian (Tolosako Kale Nagusian) izango da abenduaren 15a bitarte. Bertan Tolosako planu erraldoi baten gainean hitz desberdinak jarri ahalgo dira herriko edozein txokotan: onak eta txarrak, ederrak edota hotzak, garbiak eta zikinak, esaterako. Hitz horiek herritarrek herriko txokoen inguruan dituzten bizipenen eta sentipenen arabera definituko dituzte, eta «herriko kaleak berdintzeko helburua bete ahal izateko» herritarrei parte hartzea eskatzen diete antolatzaileek.

Bestalde, norbere irudierekin proiektua babestu nahi izanez gero, galerian argazki estudio txiki bat jarri dute. Irudi horiek Julieta Murrallera artistak hilaren 15etik aurrera, planuan markatutako lekuetan, kalean egingo dituen ekin-tzen parte izatea da asmoa.

Ekarpenak hilaren 15era arte egin daitezke, astegunetan 18:00etatik 20:00etara egongo dira bertan Hiria Kolektiboko kideak, larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta egandetan 10:00etatik 14:00etara. Gko galeria zabalik dagoen orotan sartu ahalgo da proiektuari ekarpenak egitera.

Euskara erabiltzeko aldarria

Euskararen Eguna »

Hainbat herri eta eskoletan ekitaldiak egin dituzte euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin.

IMANOL GARCIA

Eskualdeko hainbat herritan Euskararen Eguna ospatu zen atzokoan. Leitzaldean gainera jai eguna izan zen, Xabier Deuna, eta Nafarroako Eguna ospatu zuten ere. Areson Guraso Elkarteak XVIII. Euskara Eguna antolatu zuten eta, besteak beste, eguerdian jolasak egin zituzten eta trikiritxaren doinuez girotuta pintxoak jaten aritu ziren.

Tolosaldean Asteasu, Ikaztegieta eta Alegian herritarrei zuzendutako ekitaldiak antolatu ziren. Asteasun, esaterako, herriko Pello Errota eskolak antolatuta jaialdia egin zen frontoian. Ekitaldia zen-bai datu emanez hasi zen, Aitor Atxaga eskolako zuzendariak azaldu zuenez: «Egindako ikerketabaten arabera, Asteasun gero eta gehiago hitz egiten dute erdaraz gurasoek. Bestalde, haurren %80ek gurasoei entzuten dieten hizkuntza erabiltzen dute».

Datu horiek kontuan hartuta, euskara erabiltzeko mezua zabaldu nahi zuten Pello Errotatik. Hala, baloi handi batzuk puztu zituzten ikasle eta gurasoen artean. Baloi bakoitzak hizki bat zuten eta guztiekin *Hitz egin!* mezua osatu zuten, hau da, euskara erabiltzeko deia luzatu zuten. «Baloiak puztzarekin euskarari airea eman behar zaiola azaldu nahi genuen», zioen Atxagak. Ekitaldiaren bukaeran baloiekin jolasten aritu ziren,



Tolosako Samaniego eskolan (ezkerrean) eta Laskorain ikastolan (erdian) eta Ibarrako Uzturpe ikastolan (eskuinean) atzo egindako ekitaldiak. HITZA

«euskararekin jolastu egin behar dela, erabili egin behar dela adierazteko», zehaztu zuen zuzendariak. Ondoren, gurasoek prestatu zuten merienda dastatzeko aukeraz izan zuten ikasleek.

Asteasun ere beste ekitaldi batzuk egin ziren atzokoan. Usarrabi kantu-jirakoek trikilariekin batera kalejira egin zuten. Bestalde, bertso-trama egin zuten Jexux Mari Iruzuk, Igor Elortzak, Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak udaletxeko aretoan.

Ikaztegieta herriko eskola eta Udalaren artean antolatu zituzten ekitaldiak. Eskolan poesia eta kantu emanaldia egin zuten ikasleek gurasoei zuzenduta. Bukaeran, Andoni Salameo urretxuarraren *E-u-s-k-a-r-r-a* abestia kantatu zuten. «Euskararen inguruan eskolan lantzen aritu direnaren emaitza izan da», azaldu du Ana Esnaola zuzendariak. Emanaldia eta gero elizaren arkupetan talo egin eta jaten aritu ziren ikasleak. Horretan laguntzeko, guraso eta aitona-amez gain, Udaletik alkatea

eta bi zinegotzi ere bertan izan ziren.

Gaurkoan ere beste ekitaldi bat izango dute Ikaztegieta. 21:00etan hasita, bertso afaria egingo dute Ostatuan Haritz Casabal eta Andoni Otamendi bertsolariekin.

Alegian ere ekimen berezia egin zuten atzokoan. Ipuin kontaketa saioa izan zuten 3 eta 8 urte bitarteko haurrek. Bereziatuna ipuin kontalariak herritarrek zirela izan zen. Kultur Etxean haur ugari bildu zen eta Euskal Herriko hiru kondaira entzun ahal izan zituzten.

Hainbat ikastetxetan ere ekitaldi bereziak egin zituzten atzokoan, gelan egunero erabiltzen den hizkuntzaren inguruan, tartean, Tolosako Samaniego Eskolan eta Laskorain Ikastolan eta Ibarrako Uzturpe Ikastolan.



Asteasuko haurrek euskaraz hitz egiteko mezua zabaldu zuten. I.G.



Ikaztegieta taloak egin aritu ziren (ezkerrean) eta Alegian herritarrek ipuinak kontatu zituzten. HITZA/I. GARCIA



Areson jolasak egin ostean pintxoak jateko aukera izan zuten. HITZA/A. IMAZ

XVI RALLYE GERNIKA-LUMO 2009
5 LARUNBATA
www.gernikaracing.com

Sponsors: BFA, DFB, Deia, Gernika-Lumo, Novikar, bbk, hitza.

ZURRE

**EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA
DURANGOKO AZOKAN IZANGO DA**

BISITA GAITZAZU GURE STANDETAN:

Artekaleko 101-104 zenbakietan • Habe multimedia - Artekaleko 50-51 zenbakietan

AARRGI TALPE NAK

Orain
Eusko Jaurlaritzaren
argitalpenak on line ere
eros ditzakezu
[www.euskadi.net/
argitalpenak](http://www.euskadi.net/argitalpenak)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Hasi da euskal liburu eta diskoen festa handia

Durangoko Azoka»
Hilaren 8a bitarte 345 argitalpen berri ikusteko aukera izango da; gaur ikasleak izango dira nagusi.

REBEKA CALVO

Gaur bertan hasiko da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka eta hilaren 8ra arte luzatuko da. Gaurkoan, hala ere, ikastetxeetako ikasleak izango dira nagusi 10:30etik aurrera.

Azokak aurten pasa den urtean baino egun bat gehiago iraungo du, izan ere, iaz egun bat kendu zioten bi astegun izan ez zitzaizkion baina aurtengoa bost egun izango ditu berriz ere. 156 parte-hartzaile izango dira azokan, iaz baino gehiago, baina erakusmahaiak iaz-gekoak izango dira, 292. Aurtengoa

parte hartzeko eskariak igo diren arren, iaz baino produktu berri gutxiago izango dira: 459, iaz baino 45 gutxiago. Liburuetan izan da jaitsierarik nabarmenena: 345 argitalpen berri izan ziren iazko azokan, eta aurten, 308. Alderantziz, disko kopurua handitu egin da, gutxi bada ere: iaz baino bost disko berri gehiago izango dira aurtengo azokan: 69. Horietako asko eskualdekoak izango dira, izan ere inguruko idazle zein musikariak nobedade bat baino gehiagorekin izango dira Durangon.

Bestalde, aurtengoa euskaraz irakasten hasi ziren lehenbiziko ikastoletako andereñoek jasoko dute Gerediaga Elkartearen Argizaiola saria eta kultura katalanek ere leku berezia izango du. Hitzaldiak antolatuzko Ramon Llull institutuaren laguntza izan dute Gerediaga Elkarteok.



Iturraldek, Olasagastik, Goenagak eta Bide Ertzean taldeak lan berriak kaleratu dituzte aurten. N. LATABURU-R. CALVO-KLIK

HITZA hirugarrenoz izango da Durangon

R. CALVO

HITZA egunkariak hirugarrenoz izango dira Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokan gaurtik aurrera. Barrenkaleko 4. zenbakian izango dira, zehazki. HITZA argitaratzen den zazpi eskualdeetan, eguneroko egunkariak gain, beste hainbat produktu ere kaleratzen dira eta horiek guztiak eskuratu ahal izango dira Durangon.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI dagokionez iaz Galtzaundirekin batera argitaratutako Mikel Eerrazkinen eta Joxemi Saizarren 1936ko gerrako oroitzapenak

Tolosaldean eta Leitzaldean liburu eramango du Durangora, baina bestelako produktuak ere izango dira eskuragai: HITZA guztien artean iaz argitaratutako *Hitzalean* narrazio liburua, estropaden liburuxkak, eskualde bakoitzetako ostalaritza gidak, turismogidak eta noski. Era berean, BUSTURIALDEKO HITZAREN *Gernikako azokak* eskuratu ahal izango da edota GOIERRIKO HITZAK 5. urteurrenaren harira kaleratutako trikitixa diskoa, besteren artean. HITZA guztien eguneroko papereko edizioak ere Durangon izango dira.

» ESKUALDEKO AURTENGO ARGITALPENAK

Liburuak

- **Joxe Mari Iturralde.** *Jack Destripatzailearen arrastoa* (Ibaizabal Edelbives) eta *Riskyren ipuinik politenak* (Elkar).
- **Jon Mintegaiaga.** *El Filtro: memorias de los refugiados vascos en Uruguay* (Txalaparta).
- **Ramon Olasagasti.** *Manuel Iradier: Afrikako animaren esploratzailea* (Elkar).
- **Juan Kruz Igerabide.** *Antso Lizarrara* (Aizkorri), *Elurra sutan* (Alberdania), *Haizearen tunela* (Giltza - Grupo Edebe), *Printzesa begizulo* (Elkar), *Txoritxoak* (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta *Xomorroak ate azpitik* (Elkar).
- **Karlos Linazasoro.** *Esan gabe doaz* (Utriusque Vasconiae), *Etxe*

hutsean (Alberdania) eta *Urperatze handia* (Elkar).

- **Patxi Zabaleta.** *Bizi!* (Pamiela).
- **Mikel Errazkin.** *1936ko Gerra Euskal Herrian: historia eta memoria* (Udako Euskal Unibertsitatea).
- **Bernardo Atxaga.** *Zazpi Etxe Frantziar* (Pamiela).
- **Euskal Herria Sozialista.** Argitaratuak dituzten marxismoaren klasikoaren euskarazko itzulpenak emango dituzte bi liburu berriekin batera: Leon Trotskyren *Trantsizio programa* eta Preobrazhenskyren *Anarkismoa eta komunismoa*.

Diskoak

- **Iker Goenaga.** ... *arteraino* (Ez Dakienak Baleki).
- **Lain.** *Lain*. (Elkar).

- **Bide Ertzean.** *Leidor Sessions* - CDa eta DVDa (Gaztelupeko Hotsak).
- **20+Hatz.** *20 Hatz proiekt* (Baga Biga).
- **Alos Quartet.** *10 Tanta* (Nocdrekords).
- **Vendetta.** *Vendetta* (Gor).
- **Desordutan.** *Eromena zor dizut...* (Bonberenea Ekintzak).

Aldizkariak

- **Bernardo Atxaga.** Asteasurrak *Erlea* aldizkaria ere izango du Durangon. Pamielaren eta Euskaltzaindiaren hiruhilabetekariaren lehen alea da.
- **'Euskal Herria Sozialista'.** Aldizkari marxistaren azken aleak eramango dituzte Durangora.

H Hilberria

JABIER IRAZOLA OLAIZOLA



Aitona Jabierri, egijatar askoren aitona izan zaitugun horri, Xabier egunez ixil-ixilik joan zaigun atezain ohiari: eskerrik asko handi eta ozena.

Aitor ikastolako, ikasle, langile eta gurasoak

DONOSTIA, 2009ko abenduaren 4a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Lizardi Pello Odriozolaren ondoan

TOLOSA Hileko lehen ostegunero bezala, Lizardi Elkarretek elkarretartzea egin zuen atzo Plaza Zaharrean. Bertan Pello Odriozola Agirireren askatasuna eskatu zuten. 20 urteko kartzela zigorra bete ostean, Odriozolari 10 urtez luzatu zioten espetxe zigorra. A. IMAZ

Laburrak

Hip-Hop kontzertua talde berezi baten eskutik

LEITZA Torren hilaren 12an, larunbatean, Hip-Hop kontzertua izanen da. Taldearen izena honakoa da: Guillem Ramisa & El teu pare da. Herrialde Katalanetatik etorriko dira eta musika hagitz berezia egiten omen dute.

Satur Eletan izena emateko aukera zabalik dago

IBARRA Atsedanak bere ikasturteari hasiera emango diola jakinarazi du. Hain zuzen, 12-16 urte bitartekoentzako Astialdia taldeari dago-kio hasiera. Gaur 18:00etan Atsedanako lokalean zenbait ekintza eta jolas egingo dituzte.

Aralar Musika Eskolako hainbat leitzarrek Oskorriekin joko dute

ASIER IMAZ

Oskorri musika taldeak hilaren 19an, larunbatean, *The Pub Ibiltaria* kontzertua eskainiko du Iruñeko Anaitasuna pabilioian.

Emanaldia Iruñeko Peñen Elkarrearen laguntzaz antolatu da eta musikari lanetan aritzeko, Nafarroako Musika Eskoletan ikasten ari diren ikasleei luzatu zi-

tzaien gonbidapena. Hori dela eta, Oskorriekin batera Aralar Musika Eskolako 32 ikaslek joko dute kontzertuan.

Leitzako hainbat musikari

Musikari gonbidatuaren artean, hainbat leitzar egongo dira, Aralar larko ikasleak izaki. Horrela, 7 akordeioa joango dira eskualdeko

musika eskolatik eta horietako bat leitzarraz izango da.

Aralartik bi saxofoi joango dira Anaitasunara eta biak leitzarrek izango dira. Azkenik, 12 txistulariaren artean eta herriko ikasleak egongo dira.

Aralar Musika Eskolatik guraso, ikasle eta herritarrak kontzertura gonbidatu nahi izan dituzte.

Jon Jaunarena berriro Labriten

Leitza » Etzi bi partida garrantzitsu jokatuko dituzte Aurrerako pilotariak, Iruñean eta Zizurren.

netan bi lehia azpimarratu behar dira.

Jaunarenak finala

Guillermo Mazo Txapelketaren finalak etzi, hilaren 6an, jokatuko dira Iruñeko Labrit pilotalekuan. Bertan egongo da Jon Jaunarena leitzarraz, jubeniletako azken lehia jokatzeko prestatuta.

Aurrerako pilotariak Txaruta Pilotak Eskolako Jauregi edukiko du aurrean. 11:30ean hasiko da pi-

lota jaialdia eta jubenilen finala, 4 t'erdia barrukoa, bertako bigarren partida izango da.

Nafar Jokoak, finalerdiak

Nafar Jokoak ere azken txanpan aurkitzen dira. Etzi finalerdiak jokatuko dira eta Hegoi Txoperena eta Oier Goikoetxea bertan egongo dira, benjaminetan. Aurrerako bikoteak, 10:00etan hasiko den jaialdiko lehen partida jokatuko du Zizurren.

tolosaldeko hitza iragarkilaburrak.com

Asteburu eta ostialdeko 7CEK arte jarraituz iragarkiak galduta agintzen dira.
BARRAKOAK JAITZENO: www.tolosaldeko hitza iragarkilaburrak.com / 943-65 56 95 telefono zerbakia

IRAGARKIAK

ETXEREBIZTAN

SALDU

Tolosa. Eraikuntza berri-
lo etxebizitzak salgai (75m²) Plazaren
reanemenduz zuzeneko
salmenta. Sukalde eta 2
komun ikipatuak, egongela
handia eta 2 logela.
Argitua, Komunua izan
erik, beste gutxiak kopuru
baga. 2 hantza edie eta
bata hantza ere. Pre-
miario salmenta.
658-72 92 88.

CARAJAK

SALDU

Alegia. Geroje mara sal-
gai Alegia San Juan ka-
lean. Planen arteanako
telefono zerbakia: 669-
82 70 96.

LAN ERAGARIK

GAIBERRADAK

Tolosaldia. Sigi garbi-
tasunak: Alfontak, etak,
bulegoak etabar gar-
bitzerako prest. Deitu kon-
sultakomprehenzibik gabe.
Guruzte: 638-94 46 04 /
Bele: 605-70 82 71.

Tolosaldia.

Emakume
orkalduz, arduratsua
eta esperientzi handikoa
esleintzen da eguner zeh
guzer adineko pertsonak
edo gaiko daudenak zain-
tzeko. Gela bainera eta

lotera baditu. Interesa-
turik egin edero deitu la-
sai eguneko edozein or-
duetan telefono zerbaki
horretaz: Etxeko: 543-
57 74 09. Mugikoa:
660-24 42 85. errefren-
tziak ere baditu.

LAN ERAGARIK

OSTALARITZA

Tolosa. Tolosako enpre-
salariek etxebizitzan
eta jai egunetan lan egite-
ko neska bat behar du.
Esperientziaduna. Harre-
manetarako telefono zer-
bakia: 661-46 31 93.

Donostia

SALDUZKOAK

**Bitartemahairako sal-
gai.** Bi treni mahairako sal-
gai. Harremanetarako
telefono zerbakia: 943-
69 34 48.

Su egurren salgai.

Su egurren salgai. 20, 30 eta
40 zentimetroko mar-
tua. Ebana emanen
dira. Harremanetarako
telefono zerbakia: 635-
75 57 62.

KANPOKOAK

GUREAN

LAN ERAGARIK

GAIBERRADAK

Donostia.

Anonimuz
Hari Laukoeta. Musika
profesionaler osatu eko

harriakoteak, garbira
musika erakiltzaile giro-
tuenduz, edozein, hile-
tak, kokteak, lan jarak,
kongresuak, inaugurazio-
ak, urteurrenak...] Beha-
naren arabera harriko-
tuak, hirukoia edo lauko-
tuak eskaintzen ditugu.
Erreparazioa antza.
PACK ezberdinak. Kalita-
tea. www.anonimuz.info.

Bilgintza

FURGONETAK

SALDU

Van California coach 2.5
sali 102cv 2003 urte-
koa salgai. 2.500
102zati, 105.000km,
2003 urteko. 6 bidai-
atze, 4 itako, eraz-
kendu eta ipintzeko erdi-
kojarlekua 5 puntuko se-

Oparka/Bidaiak

Marokozagutu. Kaxel
Hassan raiz, Maroko
basamortu berebere
bat. Marokora bidaiatza
proposatu dugu, ba-
samo tuta berezik, han-
gojerdea, herrik, kultu-

ra, etabar, esagutzeko.
bainuzer turistak leialde-
lakaia bezala bazuk. Nire
web-aria bisitatzen ari-
matzen zabalriet:
www.marroccosaga-
tu.com, eta edozein in-
formazio, bidaiaren pre-
tatzeko laguntza, edo er-
zer behar izanez gero
nirekin kontaktuan jarri,
horren berri prest emate-
ko bainago. Mila eker ni-
rekin kontaktuan jarri.

Turismo eta Nafar

www.ikolanianaldi.com

Oparka/Bidaiak

Marokozagutu. Kaxel
Hassan raiz, Maroko
basamortu berebere
bat. Marokora bidaiatza
proposatu dugu, ba-
samo tuta berezik, han-
gojerdea, herrik, kultu-

ra, etabar, esagutzeko.
bainuzer turistak leialde-
lakaia bezala bazuk. Nire
web-aria bisitatzen ari-
matzen zabalriet:
www.marroccosaga-
tu.com, eta edozein in-
formazio, bidaiaren pre-
tatzeko laguntza, edo er-
zer behar izanez gero
nirekin kontaktuan jarri,
horren berri prest emate-
ko bainago. Mila eker ni-
rekin kontaktuan jarri.

Ikolanianaldi
MANTENURAKO MEKANIKOAK
behar dira.
Ezpenetara ezbestekoa da.
Ikusi lan eskaintzak: **943-16 20 48**
www.ikolanianaldi.com

FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK
REKALDE DEKLATOKIA

BELETOKIA
EGUREAN
LEKUALDEAK
SOKARAGIA
AFARRAJEKUA
DOLANAK INTERNET-EE
www.funerariavascongada.com

Herribeite:
BERKALDE, ST 30018 DONOSTIA

24 orduko zerbitzua
943 376 980

Leku hiru zure
iragarkaren zain dago

Etxebila
higuntzarako

943-44 61 66

ALONKARRAN
ERIKHO GANA 2 logela, egongela, sukaldia, bainugelak
Bata ederra. 300€
ERKALDEAN 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela
Oro polita. 1.200€
ERKALDEAN Anaitasun IC Apartamentu polita. Irtegia
100€
PISU SAN JUAN 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela
Balkoi. 675€
PISU SAN JUAN Oro apartamentu polita. Balkoi. 800€
SALBERTAN
ASTIGARRAGA 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela
Karpota. 28.500.000€
ANTZUA 2 logela, sukaldia, egongela, bainugela Terasa
31.400.000€
AMARRA Mairu atak. 2 logela, egongela, sukaldia,
bainugela. 21.800.000€
AMARRA 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela Karpota
begira. 38.625.000€
AMARRA Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldia,
bainugela Argitua. 36.950.000€
AMARRA 100m². 4 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela
Terasa. 38.900.000€
AMARRA 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela
Terasa. 41.500.000€
AMARRA Karpota. 2 logela, sukaldia, egongela, bainugela
Terasa. 38.950.000€
ALDE ZAHARRA 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela
37.950.000€
ALZA Oro polita. 2 logela, egongela, sukaldia, sukaldia,
bainugela Karpota begira. 36.950.000€
ALZA 3 logela, sukaldia, bainugela, Balkoi. Irtegia
28.950.000€
BIDEHETA 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela,
Balkoi. Irtegia. 35.950.000€
BIDEHETA 2 logela, egongela, sukaldia, sukaldia,
bainugela, Balkoi. Irtegia. 36.800.000€
LEZIO 75m². 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela,
Balkoi. Egokitua. 31.500.000€
ERRENTERIA 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela,
Irtegia. 31.500.000€
HELANA 2 Alko herri erdian. Irtegia. Berritua.
31.000.000€ bakoita.

www.etxebila.net
Felix IV etarte. 4 - DONOSTIA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaiztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Bizikletak uzteko tokia

Tolosa » Bizikletak uzteko proposamen berri bat asmatu du Juan Inazio Hartsuagak; proiektua patentatu egin du.

ERREDAKZIOA

«Bizikleta ez da benetan erabiltzen hasiko, aparkaleku duinik ez dagoen bitartean». Hausnarketa horretatik abiatuta, bizikletak uzteko aparkaleku berezi bat asmatu du Juan Inazio Hartsuaga enpresari tolosarrak. Bikennel du izena, sei biziklentzako tokia du honek, eta lapurretak nahiz euriaren ondorioz bustitzea ekiditen ditu.

Atzo aurkeztu zuen proiektua

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Udaleko ordezkariekin, eta egitasmoa gauzatzeko lagundu dion Xarles Garmendia artistarekin batera. Izan ere, «aparkalekuak hiri paisaia duen eragina murrizteko asmoz, graffitiak egin ditu aparkalekuaren alde guztietan». Era honetan, Bikennel, artea kaleratzeko modu bat ere izan daitekeela uste du egileak.

Iurre Peñagarikano zinegotziak ere parte hartu zuen atzo goizean Usabal kiroledegian egindako aurkezpen ekitaldian. Bertan, Hartsuagaren lana zoriondu zuen, «pozgarria baita horrelako proiektu bat egitea tolosar batek». Gainera, Tolosako artistekin elkarlanean egitea proiektua nabarmendu zuten. Zinegotziaren hitzetan, «gure erroka da, oinez eta bizikletan jendea ibiltzea».

Erabilpen publikorako pentsatuta dagoenez, Bikennelak ezaguri hauek ditu: alde batetik, sarraila elektronikoa du, txartel-giltzaz dabilena. Bestetik, urrutitik ikusteko moduko iragargailu bat du, hurbiltzen ari den txirrindulariari erakusteko hutsik ote dagoen.



Atzo aurkeztu zuten Usabal kiroledegian, Bikennel-en, bizikleta aparkalekuaren prototipoa izango dena. E. EZEIZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZ Aren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZ Aren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

www.euskalherriko
plaza.com

TOLOSako LASKORAIN IKASTOLAK LANGILE HAU BEHAR DU



Fisikan, Matematikan edo Ingenieritzan lizentziatua Derrigorrezkoak EGA eta FIRST tituluak gutxienez IKTak: "Autocad" eta "Solid Edge" programetan trebatua gutxienez

Curriculumak e-mailez bidali behar dira tolosa@ikastola.net heibidera. Jasoko diren azken eguna, abenduaren 11.